

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Lehendakaria nekazaritza-kooperatiben lehiakortasuna eta integrazioa sustatzearen alde agertu da

*Yolanda Barcinak UCANen batzar orokorraren irekieran esku hartu du*

Viernes, 22 de marzo de 2013

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak kooperatiben lehiakortasuna eta integrazioa bezalako "hain alderdi garrantzitsuak" sustatzearen alde agertu da gaur, [Nafarroako Nekazaritza Kooperatiben Batasuneko](#) (UCAN) batzar orokorraren irekiera-ekitaldian, Berriobeitin egin dena.

Bere [agerraldian](#), Lehendakariak Nafarroako Kooperatiben II. Integrazio

Planaren ekintza nagusien berri eman du, Foru Gobernuak 2012an abian jarri zuena, beraien lehiakortasuna eta integrazioa errazteko, eta neurri juridiko-fiskalen neurrietan nahiz finantzaketa, inbertsio eta gastuen neurrietan biltzen direnak.

Haiek honako hauei dagozkie: kooperatibak bat-egiteko laguntzak; balio erantsi handieneko inbertsioentzako laguntzak handitzea, bat egindako kooperatibek egindakoak; elkartze-erregimenean instalazioen eta ekipamenduen horniketarako laguntzak; eta integrazio kooperatiboa dinamizatzea.

Ekitaldiaren buru izan dira, Yolanda Barcinaz gain, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako kontseilari José Javier Esparza; UCANeko lehendakari José María Martínez eta kooperatiben elkarteko lehendakariorde Ángel María Rodríguez.

### Batzar orokorra

Irekieraren ostean, UCANeko kideek beren karguak berri dizkiete bost kideei eta Artezkaritza Kontseiluko hiru kontu-hartzaileei; haien agintaldia gaur amaitzen zen eta, beraz, beren eginkizunetan jarraituko dute beste lau urtez kideen kasuan eta bi urtez kontu-hartzaileen kasuan.

Gogoratu behar da Artezkaritza Kontseilua hamar kidez osatzen dela, erakundearen lehendakariak eta beste bederatzik kidek, lau urteko agintaldiarekin, hiru kontu-hartzaileekin batera, biko batekin. Kideen erdiak



Barcina Lehendakaria UCANen batzar orokorraren irekieran. Harekin batera, ezkerretik eskuinera, Esparza, Martínez eta Rodríguez.

berritzen dira bi urtetik behin, kontu-hartzaile guztiak bezala.

Batzar honetan beren karguak berriitu zaizkie CUMAs eta Makinariako kideari, Ángel María Rodríguez, organoko lehendakariordea dena ere; Oliokoari, José Francisco Doncel; belarkien laborantzakoari, Estanislao Marco; Abeltzaintzakoari, Jesús María Olías; eta Ardokoari, Miguel Bujanda; bai eta José Javier Mozaz, Basilio Echarte eta Benito Arriazu kontu-hartzaileei ere.

Artezkaritza Kontseilua, gainera, elkarteko lehendakari José María Martínezek osatzen du; eta Egitura eta Landa Garapeneko kideak, Pedro Jesús Jimenok, organoko idazkaria ere dena; Prestakuntza eta Ingurumeneko kideak, Jesús María Alcalde-k; Barazki eta Fruten kideak, Isidro Galarretak; eta Hornidura eta Teknologia Berrien kideak, José Luis Planillok.

Batzarrean, gainera, Nekazaritza Ministerioko Elikadura Industriako zuzendari nagusi Fernando Burgaz-ek parte hartu du, eta baita Espainiako Nekazaritzako Elikagaien Kooperatibetako zuzendariorde Agustín Herrero-k ere; mahai-inguru batean esku hartu dute, Integrazio Kooperatiboaren Sustapeneko eta Erika Katea Hobetzeko lege-proiektuen edukiari buruzko mahai-inguruan, berriki Espainiako Gobernuak onartutakoak.

Bilkurari Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako kontseilari José Javier Esparzak eta UCANeko lehendakariak eman diote itxiera.

Nafarroako Nekazaritza Kooperatiben Batasunak bazkide diren 151 kooperatiba batzen ditu eta 2012an 994,6 milioi euroko fakturazio-bolumena izan zuen. Gogoratu behar da Nafarroako elikagaien nekazaritzako sektore kooperatiboak 1.700 bat pertsonari ematen diela enplegua.